

B O O B I Z I

Balorea sortu

Gaur egun, mendebaldeko herrialdetako emakumeen artean minbizi ohikoena, eta gehien eragiten diena, bularreko minbizia da. Azken estadistika eta ikerketen arabera, 2020. urtean %30-ko kasuen hazkundera egon zen; 30.000 kasu berriekin. Zortzi emakumetatik batek bularreko minbizia jasango duela aurreikusten da. Hau ikusita, eta minbizi oso arrunta izanda, uste dugu garrantzitsua dela emakume hauei langutzea eta zerbait eskaintzea.

Gaian gehiago sakonduta, ikerketak irakurtzean, eta minbizi hau bizi izan duten emakumeen elkarrizketak ikustean, konturatu ginen autoestima arazo handi bat zegoela. Gainera, informazio eskasia dela eta, jende gutxik kontuan hartzen duen zerbait da. Izan ere, sarri urrun duten gai bat izanda, ez dira haren larritasunaz konturatzen eta emakume hauen emozioak baztertuta eta isileratuta gelditzen dira.

Hori gutxi balitz, haien gorputzean barruratzeko protesiarren ebakuntza maiz min gehiago egiten die minbizia eraztekoa baino. Halaber, andre hauetako askok sentitzen dute protesiarren morroiak direla eta beste ebakuntza bat egitera behartuta daudela. Hain zuzen ere, arrazoiak anitzak dira premia edo derrigortasun hau nabaritzeko.

Alde batetik, gizartean dauden estereotipoak eta aurreiritziak baldintzatzen dute emakumeek bere gorputza nola ikusten duten. Epaituak sentitzen dira eme idealaren eredia ezin dezaketelako bete edo jarraitu eta horrek makina bat segurtasun-eza sorrarazten dizkie, haien autestima guztiz kaltetuz. Maiz, ez dira eroso sentitzen jersey edo kamiseta bat janztean, ispiluan ikusten duten itxura gustoko ez dutelako. Gainera, kalera ateratzean behatuak direnaren ustea daukate eta honek gogorazten die behin eta berriz sufritu izan duten minbizia. Horretaz aparte, sexu harremanak izateko orduan, lotsatutak sentitzen dira eta bere gorputza ezkutatu behar dutela pentsatzen dute.

Bestetik, emakume hauek dirutza handia uzten dute haien bularretakoak erostean. Izan ere, neurrira egindakoak erosi behar dituztelako. Honek denbora eta diru

asko ditu berekin, jostunak patroi berri bat egin behar duelako emakume bakoitzarentzat. Ondorioz, produktu hauek luxuzkoak bihurtzen dira. Berez, ezinbestekoak dira eta komenigarria litzateke horien prezioa merketzea. Hori dela eta, gure proiektuarekin lortu nahi duguna ez da zerbait berria sortzea bazik eta merkatuan jada dagoen produktu hau eskuragarriagoa egitea; bai salneurri onargarri eta bidezkoa ezarriz, bai emakumeen ongizatea bermatu nahian gertutasunaren alde eginez.

Esandako guztiagatik, gure proposatutako produktuak bi bularretako bereziak dira. Bata kanpo-protesi batekin, eta bestea protesi gabe, hau da, bakarrik kopa batekin. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu produktu hauek masan ekoiztea, horrela produktuen kostua murrizten delako. Produktu honekin emakumeak erosoago sentitzea lortu nahi dugu eta katalogo zabalago bat izatea beraien gustukoa den bularretako bat aukeratzeko.


Horrez gain, gu, boobizi, oso kontzienteak gara minbizi honen aurka borrokatzeko eta emakumeei laguntzeko eskaintzen dugun produktua ez dela nahikoa; hau da, kapitala ere behar da. Hori dela eta, gure proposamena da irabazitako diruaren zati bat hainbat elkarteei; esate baterako, AECC-ri ematea, kausaren alde agertzeko asmotan eta gure bezeroek ere dohaintza emateko aukera izan dezaten. Prozesu hau martxan jartzeko, estatuko hainbat elkarteekin harremanetan jartzea ezinbestekoa da, hortaz, gure webgunearen bitartez gure bezeroei jakinaraziko diegu behar den informazio guztia.

Behin guzti hau argi izanda, gure enpresa *boobizi* deitzea erabaki genuen. Izen honen esanahia bular bizi da, *boob* ingelesez bular esan nahi du eta bizi bizitza. Honekin adierazi nahi duguna da, jasandako borrokaren ondoren bizitza aurrera egiten duela eta mina bukatu dela.

Bibliografía:

https://www.instagram.com/p/CVKqcI5N_GU/?utm_medium=share_sheet

<https://www.geicam.org/sala-de-prensa/el-cancer-de-mama-en-espana>



Rev Senol Patol Mamar. 2016;29:19-25

EL CÁNCER DE MAMA, EN CIFRAS

EL CÁNCER DE MAMA ES EL **TUMOR MÁS FRECUENTE** EN LAS MUJERES OCCIDENTALES

DE 2012 A 2018 SE HA PRODUCIDO UN AUMENTO DEL **30%** EN EL NÚMERO DE CASOS DETECTADOS EN ESPAÑA AL AÑO


1 DE CADA 8 MUJERES PADECERÁ CÁNCER DE MAMA

EN ESPAÑA, SE DIAGNOSTICARON **32.825 CASOS** DE CÁNCER DE MAMA EN 2018

LA **SUPERVIVENCIA** 5 AÑOS DESPUÉS DE SER DIAGNOSTICADA UNA MUJER DE CÁNCER DE MAMA ES DEL **90%**

Cáncer de mama: el más común y mortífero para las mujeres

Cánceres con mayor incidencia y mortalidad en mujeres en España




* Estimación para 2020.
** Datos de 2018.

Fuente: Las cifras del cáncer en España 2020 - Sociedad Española de Oncología Médica



¿Por qué importa el Día contra el cáncer de mama?

Cánceres con mayor incidencia y mortalidad en mujeres en España



* Estudio publicado en 2014 con datos de 2012
Fuente: Sociedad Española de Oncología Médica